

Udazkeneko organo zikloaren lehen kontzertua Lesakan.

2026ko irailaren 20an, igandean, 18:30ean, Lesakako Tourseko San Martin elizan, “2026ko udazkeneko organo zikloaren” lehen kontzertua izango da. Lesakako Roqués organo historikoa berriz ere protagonista izango da, “El MAYORAZGO DE BASTERRETXE” pelikula mutua musikalizatuko den kontzertu zinematografikoan.

Film mutua zuzenezko musikarekin

Basterretxeko maiorazkoa Donostian estreinatu zen 1928ko urtarrilaren 19an. Mauro eta Victor Azkona anaiei film hau da zinema mutuaren aroan Euskal Herrian ekoiztu eta kontserbatu den filma bakarra. Euskadiko Filmategiak zaindutako bitxi historiko honek Aizgorri izeneko alegiazko herri bateko baserri batean bizi den Basterretxe familiaren gertakari batzuk kontatzen ditu.

Zuzeneko Musika:

Pelikula proiektzioaren zehar (Euskadiko Filmategiak adeitasunez utzia), Ana Belén García organo-jotzaileak eta Thierry Biscary abeslari eta perkusio-jotzaileak txuri beltzean diren irudi mutuak girotzen dituzte.

Organoa, melodika, ahotsa, danborra eta txalapartarekin, bikoteak dramaren edukia nabarmentzen du, ikuslearen irudimena lagundu eta osatzen du.

Filmaren sekuentzia batzuetan, “Lesakako Abesbatza” abesbatzak parte hartuko du.

Euskal Herriko konpositoreen lanak proiektzioaren zehar entzuten dira: Aita Donostia, Tomas Garbizu... bai eta ere Thierry Biscary-ren sorkuntza batzuk.



ANA BELÉN GARCÍA

Organoa, txalaparta eta melodika.

Andoainen jaio zen eta bertan ere hasi zituen bere musika ikasketak.

Donostiako Goi-Mailako Musika Kontserbatorioan jarraitu zuen bere piano-prestakuntza eta bertan bukatu zituen pianoko eta klabizenbaloko goi-mailako ikasketak nahiz organoko erdi mailako ikasketak (Esteban Elizondo).

Donostiako Goi-Mailako Musika Ikastegian, Musikenen, bukatu zituen organo ikasketak, Esteban Landart-ekin eta bere prestakuntza Loïc Mallié-n moduko hainbat irakaslerekin osatu zuen; azken horren eskutik inprobisazio ikasketak jaso zituen. Hainbat maisuren gomendioak jaso ditu, hala nola Brett Leighton, Michel Bouvard, Joris Verdin, Louis Robilliard, Montserrat Torrent, Jacques van Oortmerssen, Daniel Roth, Wolfgang Zerer, Pieter van Dijk...

Enrique Lartundo Fundazioak beka eman dio behin baino gehiagotan organo eta piano espezialitateetan, eta Jesús Martín Mororekin L'Ecole Nationale de Musique de Pau delakoan organo ikasketak hobetu ondoren, "Mention Tres Bien a l'Unanimité" lortu du.

Bakarlari eta laguntzaile nazioarteko hainbat jaialditan hartu du parte (Espainia, Belgika, Frantzia, Errusia, Japonia eta Estatu Batuak), estilo eta garai guztiak hartzen dituen musika interpretatuz. Musika berriekin konprometitua, hainbat jaialditan piezak estreinatu ditu: Donostiako Hamabostaldian, Leonen, Croacian eta Libanon.

Egun, Urnietako Lourdes Iriondo musika-eskolako zuzendaria eta Donostiako Easo abesbatzako errepertorista da. Eta Koruko Andre Mariaren basilikako organista titularra izateaz gain, Donostiako Musika Hamabostaldiko Nazioarteko Organo Jaialdiko zuzendaria ere bada.



THIERRY BISCARY

Kantua eta perkusioak (txalaparta, pandereta, danborrak).

Anhauztar (Baxe Nafarroa) honek talde ainitzetan kantatu du : Bost gehio, Bolbora, Hegalka, Triki traka, Kokin, Kalakan.

Musika tradizionala, munduko musika eta musika klasikoa alorretan interpretatzaile bezala ibiltzeaz gain, autodidakta hau autore- konpositorea da.

2006an, Thierryk Katia eta Marielle Labèque pianista ospetsuak ezagutu zituen eta haien Ravel-en Boleroa proiektua lantzen hasi zen. Ondoren, bere gazamak bultzaturik, Kalakan taldea 2009an sortu zuen. Hirukote honekin, 7 urtez, musikari ezberdinekin lan egin zuen :munduko musika arloko musikariek (Oreka Tx, Artus, Dobet Gnahore), musika klasikokoak (Freddy Eichelberger, Lachrimae Consort, Yves Rechsteiner eta Alparock, Montpellier-ko Orkestra Nazionale, Gabriel Erkoreka, Espainiako Orkestra Nazionale eta Juanjo Mena) edo pop musikako artistekin (Madonna) besteak beste.

2017an, erdi arotik gaur egunerat egin den euskal konpositore herrikoi eta klasikoen errepertorioa ikertzen hasten da. Hegiak taldea osatzen du Oreka TX txalapartarekin, Ander Zulaika perkusionistarekin eta Eñaut Elorrieta kantariarekin. Talde horrekin Labèque ahizpen Amoria izeneko disko (Deutsche Grammophon zigilupean) eta zuzeneko biran parte hartzen du.

2018an bere bakarkako karrera abiatzen du. Manéz eta Kobreak diskoa plazaratzen du metalezko tresnen eta kantari talde batekin.

2019an, Zaz frantses kantarixarekin euskaraz abesten du. Kukai dantza konpainiaren Oskara ikuskizunarekin Avignon hiriko festibaleko sail ofizialean parte hartzen du.

2020an Muda izeneko bere bigarren diskoa plazaratzen du. Eugène Green zinegilearen Atarrabi eta Mikelats pelikulan aktore eta musika konpositore bezala parte hartzen du. Aldi berean, kantu tailerrak eskeintzen ditu Euskal Herriko hiri ezberdinetan (Donostia, Zarautz, Elizondo) eta Kalapita produkzioak bere ekoizpen enpresarekin zerbitzu ezberdinak garatzen.

